# Istripu eta herriratze aseguruaren kontratazioa

## Aseguru bat kontratatu behar dute, abiatu aurretik, Nazioarteko mugikortasuna egin nahi duten UPV/EHUko ikasle guztiek

| | |
|---|---|
| ***HORI JASOTZEN DUEN ARAUDIA*** | Erasmus+ Doktoregoa 2022-23 Deialdia - "Nahitaezko Dokumentazioa" atala. |
| ***KONTRATU BEHARREKO ASEGURU MOTA*** | ONARTUTAKO PLAZARAKO aurreikusitako EGONALDI OSOA estaltzen duten **bidaiako laguntza aseguru oro**. Honako hauek jaso beharko dituzte, nahitaez:<br>– Gaixotasunagatiko eta/edo istripuagatiko **mediku arreta**ko ohiko kontingentziak.<br>– Estaldura MUGAGABEA **herriratze gastuetarako heriotza gertatuz gero**, eta **jatorrizko herrialdera joateko osasuna dela eta**.<br><br>* UPV/EHUk IBILI ASEGURUA kontratatzeko aukera eskaintzen du. Edonola ere, edozein aseguru kontratatu aurretik, harrerako unibertsitatearekin unibertsitate horrek eskatzen dituen **gutxieneko osasun-estaldurak baieztatzea** gomendatzen da. |
| ***ZER AURKEZTU EUSKALHERRIKO UNIBERTSITATEAN*** | 1. **IBILI** asegurua kontratatzen bada, **"El resumen de tu seguro"** izeneko orria aurkeztu behar da.<br>2. **Bestelako aseguru bat kontratatuz gero**, aseguruaren kopian honako **datu hauek agertu beharko dira**:<br>– *Aseguratutako pertsona*ren datuak (ikasleen datuak).<br>– Aipatutako *nahitaezko estaldurak*.<br>– Indarraldi *eremua* eta *estaldura aldia*.<br>– Asegurua ordaindu dela egiaztatzen duen *banku egiaztagiria* aurkeztu beharko da. |
| ***NOIZ ETA NON AURKEZTU ASEGURUA*** | Mugikortasuna hasi **AURRETIK, Doktorego Eskolako Nazioarteko Harremanetarako koordinatzaileari** aurkeztu behar da.<br><br>**GARRANTZITSUA**: ez dira akordio akademikoak sinatuko asegurua entregatu arte. |

movilidad.internacional@ehu.eus
www.ehu.es

BIZKAIKO CAMPUSA - CAMPUS DE BIZKAIA
Liburutegiaren eraikina 2. solairua
Sarriena auzoa z/g
48940 Leioa